

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko irailaren 16tik 20rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



### Datuaren analisisia


Inbertitzaileek Alemaniako ekonomian duten epe ertaineko konfiantza igo egin da irailean, abuztuko beherakada handiaren ondoren, baina horrekin ez da alarma egoera desagertu, aurreikuspenak negatiboak baitira oraindik, borroka komertzialaren eta Brexitak ekarritako ziurgabetasunaren ondorioz. Bada, ZEW indizea -22,5 puntuetara igo da aurreko hileko beherakadatik (-44,1 puntu). Adituek, baina, -38 puntu espero zituzten. Oraingo egoeraren azpi-indizea -19,9 puntuetan kokatu da irailean, esperotako -15,0etik eta aurreko -13,5etik. Aukeren azpi-indizea, berriz, -43,6tik -22,4ra igaro da.

### Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hilabeteetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: BoE / KPI



### Datuaren analisisia

**Ingalaterrako Bankuak** % 0,75ean mantendu zituen interes-tasak ostegunean, Erresuma Batuak EB utzi aurretik (urriaren 31n) egindako azken bileran. Tasak bere horretan uzteko erabakia aho batez hartu zen. Ingalaterrako Bankuak adierazi zuen adierazle ekonomiko britainiarrak «hegazkorragoak» direla herrialdea bloketik ateratzearekin lotutako gertaera politikoen ondorioz. Ondorioztatu zuen, gainera, ezegonkortasunak zenbat eta gehiago iraun, orduan eta handiagoa izango direla hazkundea eta inflazioa geldotzeko aukerak. Horrek esan nahi du tasek maila baxuan jarraituko dutela denbora luzeago batez.

Erresuma Batuko **KPIa** % 1,7koa izan zen abuztuan, bere mailarik baxuena 2016ko amaieratik.


### Adierazlearen azalpena

**Ingalaterrako Bankua (BoE)** Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

**KPIa** hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den adierazten du ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia

Industria-ekoizpena % 0,65 igo zen abuztuan, igoerarik handiena urtebetean, aurreko hileko % 0,1etik (% 0,2tik berrikusitako datua). Adituek espero zutenaren gaintik egon da irakurketa (% 0,1). Industria-ekoizpenaren hobekuntza manufakturen ekoizpenaren gorakadaren ondorioz gertatu zen batik bat, aurreko hileko -% 0,4tik % 0,5era. Meatzaritzak eta petrolioaren industriak ere nabarmen egin zuten gora, % 1,4ra (ekaineko -% 1,5etik). Industriaren datuak bereziki positiboak izan ziren, eta adierazle aurreratu batzuk aurreikusitako bigarren sektorearen portaera okerrago baten mamuak uxatu zituzten, ez, ordea, desagerrarazi.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldatetak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: FEDen BILERA

#### FEDen balioespenak:

	2019		2020		2021		2022	Largo plazo	
	Anterior	Actual	Anterior	Actual	Anterior	Actual	Actual	Anterior	Actual
PIB	2,1%	2,2%	2,0%		1,8%	1,9%	1,8%		1,9%
Tasa paro	3,6%	3,7%	3,7%		3,8%		3,9%		4,2%
PCE	1,5%		1,9%		2,0%		2,0%		2,0%
PCE Core	1,8%		1,9%		2,0%		2,0%		

#### Datuaren analisisia

Erreserba Federalak interes-tasak jaitsi zituen berriro, % 1,75 eta % 2 bitartean kokatzeraino, baina oso seinale kontrajarriak eman zituen bere hurrengo urratsen inguruan. «Enpleguaren hazkundera sendoa izan da beste behin, eta, azken hiru hilabeteetako langabezia-tasa txikia izan da batez beste», azaldu zuen AEBetako banku zentralak bilera ostean bidalitako txostenean. «Familien gastuak gora egin duen arren, enpresen inbertsioa eta esportazioak ahuldu egin dira». Erakundeak uste du, beraz, itxaropentsuak direla aukera ekonomikoak «eta diru-politikaren aldaketa txikiekin lortuko direla». Nolanahi ere, Powellen ustez «aurreikuspen positibo horiek arriskuan daude, mundu mailako hazkunderaren eta garapen komertzialaren ondorioz». «Ekonomia moteltzen bada, egokiagoa litzateke murrizketa-sorta handiago bat aktibatzea», argitu zuen Powellek.

#### Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia


Industria-ekoizpena urte arteko % 4,4 hazi zen abuztuan, aurreko hilean baino lau hamarren gutxiago. Datua analisten aurreikuspenen oso azpitik kokatu zen, % 5,2 eta % 5,5 bitarteko hazkundea espero baitzuten hil horretarako, eta, beraz, adierazle honen hazkunderik motelena izan da 2002ko otsailetik.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderen analisia egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: BOJ / KPI



### Datuaren analisia

**Japoniako Bankuak** egonkor mantendu zuen diru-politika, baina atek ireki zizkion ekonomia suspertzeko neurriak gehitzeko aukerari, ekonomia mehatxatzen duten arriskuei buruzko ohartarazpen irmoago bat egin zuenean.

**KPIak**, bestalde, urte arteko % 0,5 egin zuen gorra, eta, beraz, hogeita hamabi hilabete jarraian daramatza gorako bidean. Oso gorabeheratsuak diren elikagaien prezioak kanpo uzten dituen adierazlearen igoerak uzkuertza egin du uztaileko % 0,6ko datuari dagokionez, eta oraindik urrun dago Japoniako Bankuaren % 2ko jomugatik. Abuztuko adierazlea azken bi urtetako minimoetara jaitsi zen, petrolioaren kostu txikiagoen eta ekonomiaren hazkunde ahulagoaren eraginez.

### Adierazlearen azalpena

Japoniako Banku Zentrala da **BoJ**. Banku-sistema osoa kontrolatzen du Hauek dira euren helburuetako batzuk: Horra bankuaren zenbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea; diru-politika egitea; Altxor Publikoko baloreekin eta Administrazioarekin loturiko jarduerak; datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta ikerketa jarduerak. Japoniako Bankuak ekonomia nazionalaren garapenean lagundu nahi du bere diru-politikarekin, prezioen egonkortasuna bermatuz.

**KPIa** hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du. 7

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
09/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.2
09/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	53.2
09/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.6
09/23	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	44.0
09/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.3
09/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	51.5
09/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	47.3
09/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.3
09/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	52.0
09/23	Espainia	Balantza komertziala	--
09/23	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	0.00
09/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	50.4
09/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	51.5
09/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
09/24	Alemania	IFO enpresen egoera	94.5
09/24	Alemania	IFO aukerak	92.0
09/24	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	97.0
09/24	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	1
09/24	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	133.0
09/25	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	9.6
09/25	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	103
09/25	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 3.3
09/26	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.0
09/26	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	211k
09/26	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0.9
09/26	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	-4
09/27	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-14
09/27	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.0
09/27	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
09/27	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	103.0
09/27	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-6.5
09/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 1.2
09/27	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	92.1
09/27	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
09/27	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--



# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSA:

Burtsen balantzea mistoa izan zen astean, petrolioaren prezioaren eta Banku Zentralen ondorioz. AEBen eta Txinaren arteko tentsio komertzialek eragina izan zuten Ipar Amerikako ostiraleko burtsen itxieran. Europak igoera txikiekin amaitu zuen astea, eta Wall Street-ek murrizketekin. Asian, bestalde, askotariko portaerak izan ziren. Bada, merkatuek aztoratuta hasi zuten astea. Saudi Arabiako petrolio-instalazio handiena droneekin eraso zuten asteburuan, eta, ondorioz, petrolio gordinaren prezioek gora egin zuten berehala. Erasoak, gainera, atak ireki zizkion AEBek Iranen kontra errepresaliak hartzeko aukerari, erasoan nahasia egotea leporatuta. Ezegonkortasun geopolitiko horren erdian, petrolioaren prezioaren igoera jarraituak dezelerazioa hauspotu lezake; merkatuaren kezka-iturrietako bat. Nolanahi ere, asteak aurrera egin ahala, tentsioak baretzen joan ziren Ekialde Ertainean, eta petrolioaren prezioen beheraka zuzendu egin zen hein batean, alertak hoztuz. Banku Zentralak ere asteko protagonistak izan baziren ere, ez zuten mugimendu nabarmenik eragin burtsen kotizazioan. Erreserba Federalak puntu laurden jaitsi zituen interes-tasak, espero zen moduan, baina seinale kontrajarriak eman zituen bere hurrengo urratsen inguruan, kideen arteko desadostasunak barne. Diru-agintaritzak, beraz, gertaeren bilakaeraren arabera jokatu du (makro, geopolitika eta merkataritza). Ingalaterrako eta Japoniako Bankuek, bestalde, ez zuten euren diru-politikak aldatu. Esparru komertzialean, egonezina areagotu zen ostiralean, merkataritza-gaietako ordezkari txinatarrek Montana eta Nebraskara egin behar zuten bisita bertan behera utzi zutelak jakin zenean. Horrez gain, Trumpen hitzetan, 2020a baino lehen ez da akordio komertzialik egingo Txinarekin.

## ERRENTA FINKOIA:

Tasek behera egin zuten Atlantikoaren bi aldeetan, baina tasa estatubatuarrak nagusitu ziren, nahiz eta FEDen bileran etorkizunean merkatuak baino joera oldarkorragoa hartuko zuela esan. Bund alemana -% 0,52an kokatu zen, eta Espainiako 10 urterako tasa, berriz, +% 0,24an, arrisku-prima 76 oinarritzko puntuetan mantenduz. AEBetan 10 urterakoa % 1,72an kokatu zen. Kredituak portaera mistoa izan zuten.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroa -% 0,51 ahuldu zen dolarraren aurrean, eta balioa galdu zuten yenarekiko eta dolarrarekiko trukean. Izan ere, Junckerren adierazpenek mesede egin zioten liberari, Brexitaren mugaeguna baino lehen akordio bat egitea posible dela esan zuenean. Lehengaiak begira, hegazkortasuna petrolioaren prezioan, Saudi Arabiako instalazioei eginiko erasoan ostean. Hasiera batean, erasoan aurreko ekoizpen-maila berreskuratzeko, hilabeteak beharko zirela baieztatu zuten zenbait iturrik, eta horrek petrolio gordinaren prezioa 69 dolarreraino eraman zuen. Gero, igoera hori zuzendu egin zen hein batean, Saudi Arabiak 2-3 astetan normaltasunera itzuliko zela argitu zuenean.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.689,88	-0,26	17,24
IBEX 35	9.179,00	0,45	7,48
DJ EURO STOXX 50	3.571,39	0,60	18,99
DJ STOXX 50	3.238,02	0,90	17,32
FTSE	7.344,92	-0,31	9,17
S&P 500	2.992,07	-0,51	19,36
Dow Jones	26.935,07	-1,05	15,47
NASDAQ	8.117,67	-0,72	22,34
NIKKEI 225	22.079,09	0,41	10,31
MSCI GORAKORRAK (Lo)	57.313,48	-0,08	7,29
MEXBOL	43.559,45	1,68	4,61
BOVESPA	104.817,40	1,27	19,26
SHANGHAI	3.149,63	-0,82	20,61
Errusia Rts Mosku	1.377,38	0,62	28,88

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,72	-0,01	-0,11
ESPAINIA 2 URTE	-0,46	-0,07	-0,22
AEB 2 URTE	1,68	-0,12	-0,80
ALEMANIA 10 URTE	-0,52	-0,07	-0,76
ESPAINIA 10 URTE	0,24	-0,07	-1,18
AEB 10 URTE	1,72	-0,17	-0,96
ALEMANIA 30 URTE	-0,01	-0,14	-0,89
ESPAINIA 30 URTE	1,15	-0,11	-1,46
AEB 30 URTE	2,16	-0,21	-0,85
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	54,60	9,13	-33,77
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	216,09	-22,02	-137,60

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-0,51	-3,93
Yena / Euroa	118,45	-1,04	-5,76
Libera / Euroa	0,88	-0,31	-1,76

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	64,62	6,58	21,53
Urrea	1.516,90	1,90	18,28

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.